

Carlos Irugarrena, Vizcayco jaun dala...

Izenburu horrekin hasten dira Markinan Karmeldarren plazan 1787. urtean eraiki zen iturriko bertsoak. Oraingo ohar hauekin bertso horien egiletza edo jabetasuna zehaztu beharrez nator.

Deustuko Unibertsitateko Euskal Ikaskuntzen Institutoko DEIKER taldeak lan bikaina burutu du *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak* transkribaturik inprimatzeaz. Rosa Miren Pagolaren zuzendaritzapean egin den talde lanari esker, ohar eta hiztegiak egoki erantsiz, sekulako lana benetan, orain nornahiren esku utzi bai du lehen artxibategietan sakabanaturik eta hain soilik aurkitu zezaken ondare hori.

Beharrezko genuen horren argitaratzea, bai euskalkiak hobeto ezagutzeko eta baita hizkuntzaren inguruan diren beste zehetasun asko eta, aldi berean, ikerketarako materiale egokia dena.

Lanari baliorik kendu gabe, osagarritzko ohar bat egin nahi nioke *Bizkaiera-3* (1992. urtean argitaratua) zenbakiaren

939. orrialdean agertzen dituen bertsoei buruz. Aita Jose Antonio Uriartek idatzita L.L. Bonaparte printzeari igorri zizkion hiru papeatu dira. Hara hemen hitzez hitz:

Carlos irugarrena, Vizcayco Jaun dala;
Marquiñaco Urijac, egin nau onela.
Ur au ederra zala, esanic aituac,
Alan arindu dira, neque ta castuac.
Ugarteco achpetan, daucat jatorrija;
Ubide saconetan, ecarri ugarija.

Markinako iturrian agertzen diren bertso horiek 1959an Eibarraren Juan Antonio Mogel eta Urkiza idazlearen omenez antolatu genituen hitzaldietan irakurri nituen, heuren egiletza J. A. Moguel idazleari emanaz (oraingo grafian jarria ikus Euskaltzaindiaren Euskera, V, 1960, 29. or.). Bertsook Juan J. Mugartegiren *La Villa de Marquina. Monografía Histórica* (1927) liburuaren 152. orrialdetik jaso nituen, baina Mugartegiren hortan ez da egilerik aipatzen.

Egilea nor zen, Gilen von Humboldt-ek aditzera eman

zuen "Diario del viaje vasco - 1801", Telesforo Aranzadik gaztelera itzultitako lanean datorrenez (*RIEV*, XIII, 1925), ikus argitalpenaren ale bereziaren 55. orrialdean. Beraz, Humboldt-ek ematen zituen argitasunak kontutan izan nituen, non zioen: "En la fuente que está bonitamente edificada, había inscripciones de Moguel, Juan Antonio, un párroco ilustrado en vascuence". Iturriko idazkuna zela eta, bestelako argitasunik ere eskaini zizkiguten Humboldt, Mugartegi eta Garatek. Adibidez, 1793an Josef Astarloa Markinako alkate izendatzean, bertsook kentzea agindu omen zuen, haien ordeztarako asmatuak ipintzeko. Baina haren ondotik izendatu zuten alkate berriak ordea, berriz Mogelenak ipini omen zituen. Gertakari hori Justo Garatek jaso zuen bere *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel* (1936) liburuaren 51. orrialdean datorrenez.

Karmelo Etxegaraik ere jasoak zituen *Geografía General del País Vasco-Navarro. Vol. Vizcaya* (1921), 855. orrialdean. Gainera, iturria eraiki zen urtea 1787.a zela zehaztu zigun.

Oroi Aita J. A. Uriarte 1812. urtean jaioa zela, 1829an Bermeoko frantzikoarren ordenan sartu eta esklaustrazio ondotik, 1836an, apez egin eta Markinara 1839. urtea gerostik joan zela. Horregatik, ezinezkoa zen izkribuz Bonaparteri igorri zizkion bertsoak bereak izatea. Badakit *Bizkaiera-3* delako liburuki horretan ez dela holakorik esaten, baina edonorentzat argi utzi nahiak bultzatu nau ohar hau egitera, zeren ezer guti irakurtzen den herri honetan, hor emana den eran azaltzeaz, norbaitek har lezake A. Uriarte egiletzat. Horregatik agertzen ditut agirien lekukotasunok, berriz ere esanaz: Bakoitzari berea, Jainkoaren legea.

J. San Martin